

OILLOAK

Oilloak, dirala zuri, dirala gorri naiz arre, protxu aundikoak dira baserri inguruan. Asko eralgi gabe azi litezke, ta urtearen buruan irabazi ederra uzten digute. Gurean, ori-xegatik, beti ezagutu dut nik oillo pillo galanta. Gure Jone-k gaurkoan esku trebea du dauzkanai eman eragiteko.

Doiñu: «Basatxoritxu...».

Goizetik soro lanera aurrean
atsegin zait gosaria,
zuri-goringoz arraultz bikoitza
zartaian erregosia;
egundo ere ments ez dakidan
maratza dut emaztia:
oillotokian onek beti du
oillo pillo errunlia.

Oilloak zaitu bear dituzu
asieratik aurrera,
lenengoz beti enda onean
egizu zeure aukera.
Oroi zu beti: ez egin, arren,
alperreko saiakera,
oillo txarrakin etor ez zaizun
txanpon urri sakelera.

Nere andreak ba dauzka naiko
enda oneko oilloak,
axola biziz esku-atsegin
linero zaindutakoak.
Estalpea du maiñaz egiña,
otak (1) ere ikustekoak;
erdian leku oillo gorriak
eroso ibiltekoak.

(1) Lo-toki.

Oillo jartzaille onak dizkigu
janak lasterxe ordaintzen,
ugari baita txanpon politikak
arin dizkigu ekartzen:
arrautzak beraz osasunakin
SOSA bait dute etxeratzen,
zaitu ditzagun poliki asko
oilloak etxean lerdin.

Azokan sarri gure arrautza
dute askotaz gurago,
soro ta zelai aurkitu jana
bazkatzen oi dutelako,
Udazkenean eta neguan
ortaz bai diru geiago
nere andreak arrautza gorritz
irrikoitsu Oi du jaso.

Gure oilloak politikak dira,
arrautz jartzaille bikaiñak;
ibilteko bi anka dituzte,
bi ego ere ariñak;
soiña ez aundi, ez eta txiki,
oso dituzu
curai begira sarritan ditut
izan nere atsegiñak.

Geienik toki itxian euki
oi ditu nere andreak,
ingurumari baita noizikan
ibiltzen dira azkeak,
zelai-bazter ta sats pilloak
azterkan zorrotz erpeak
egundo ere akitu barik
lanean geldi-gabeak.

Estalpe txairo itxitakoan
ona duzu eukitzea,
geiago baita iñolaz ere
olakoan ematea;
larogei edo, ta emazteak
duan gure oillo taldea,
ederra dala dirudi ontaz
eukeratu zun endea.

Begira, otoi: batzuk dituzu
buru lodi ta luzeak,
gangarra makur, gorri kokotza,
begiak bizi arreak,
azkazal motzak, auts margoiz lumak,
ankak olako gabeak,
lepoa lodi, iztarrak sendo:
auek dira jartzailleak!

Gaur goizean sasteian dabiltz.
Zertan? Jaki goxo billa.
Ar ta xomorro, belar guriak,
or da jateko bipilla.
Oek bazkatzen duten oiena
arraultz gorritan dabilla,
ta auena duzu arraultz goxoa:
egi duzu biribilla.

Guk beintzat ortan, zuri ta gorri,
pilloa dugu etxean,
ta arraultz-opilla etzaigu palta
ez goizez, ez illuntzean.
Poliki daude gure oilloak,
poliki asko atean;
poliki daude baita barruan,
kuluska goxoz otean.